

PRENTSARAKO OHARRA

18/11/08

Foru Aldundiak 10,2 milioi euro bideratuko ditu barrikuntza eta ezagutza arloetako azpiegiturretara

2019ko Bizkaiko Aurrekontuen Proiektuaren ganeko bigarren informazio jardunaldia egin da gaur Batzar Nagusien Bilboko egoitzan, Ekonomia eta Ogasuneko batzordearen barruan. Deitutako hiru saioetako batean, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako foru diputatuak iragarri dauenez, datorren urtean bere sailak 10,2 milioi euro bideratuko ditu barrikuntza eta ezagutza arloetako azpiegiturretara. Azpiegitura horreen artean dagoz Ezkerraldeko Teknologia Parke barria (3,1 milioi euro); ekintzaitzarako nazinoarteko zentroa (500.000 euro); eta Energy Intelligence Center – EIC– eta Automotive Intelligence Center – AIC– izenekoak (6,6 milioi euro).

Hori da Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako sailaren kontuetan jasoten dan gaietako bat. Kontuek %5,4 egingo dabe gora, 283 milioi eurora helduz.

Bere esku-hartzean, foru diputatuak, bere sailak Bizkaiko enpresa txikiei eta ertainei emongo deuten laguntzea be azpimarratu dau, 4,3 milioi euroko zuzkidureagaz, programa honeen bidez: barrikuntzarako, inbertsinorako eta nazinoartekotzerako laguntza integraleko 3i programea; lehiakortasuna bultzatzeko 2i programea; Elkarlanean dekretua; eta enpresentzako eta bultzatzaileentzako eta hornitzaileentzako balio kateak indartzeko programa barria.

2019an egingo diran obren artean, Pradalesek honeek aitatu ditu: Bidesarea planeko jarduketak (21,6 milioi euro), horren barruan Kukularrako bigarren fasea eta Bermeoko saihebidetaz lotzeko errepidea dagoz; eta Supersur izenekoaren 1b fasea (45 milioi).

Errepide sarearen barruan, Foru Aldundiak datorren urteari begira daukan lehentasunetako bat bizikletaz ibiltzeko sareari emongo jakon bultzada “indartsua” izango da, “bizikletak oso leku garrantzitsua beteko dauen mobikortasun barrian behar egiteko”.

Nazinoartekotze eta talentu sailaren barruan, nazinoartekotze eta enpresa txikiei eta ertainei laguntzeko programek 4,7 milioi euro eukiko ditue. Kopuru horren barruan, enpresentzako laguntza dekretura bideratuko diran 2,5 milioi euroak (+%28) azpimarratu behar dira. Horrez gain, ekitaldi barri honetan, 2,1 milioi euro bideratuko dira talentuari eta bikaintasunari laguntzeko ekintzetara eta programetara.

Imanol Pradalesek balioan jarri dau Bizkaia turismorako jomuga gisa modu integralean sustatzeko emoten dan bultzada handia, 5,3 milioi eurora heltzen diran partidakaz, hau da, 2018an baino %18 gehiago. Diputatuak ekintza barrizalea be azpimarratu dau “Lurraldean turismorako seinale barriak sustatzeko, turismoaren joan-etorriak Bizkaia osora zabaldu ahal izateko”. Turismo eta Kanpo Sustapen Zuzendaritza izango da jarduketa hori aurrera eroango dauena, Bide Azpiegitura Zuzendaritzagaz lankidetzan.

IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA

Elena Unzueta Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko foru diputatua izan da bere sailak 2019an aurrera eroan beharreko ekimenei aurre egiteko eukiko dauen aurrekontua gaur zehaztu dauen lehenengoa. Kopuru hori, beharginen gastuak aparte itzita, 75,9 milioi eurokoa izango da.

Jarduketako ildo nagusien artean, Unzuetak, Nekazaritzako zuzendaritzaren barruan (27,12 milioi euro) lehen sektorerako zuzendutako laguntzen 22 milioi euroak azpimarratu ditu. Barrikuntza nagusia, pinuaren gaixotasunari aurre egiteko eskiniko diran laguntzako eta esku-hartzeko ildoetara bideratuko dan 1,7 milioi euroko partidea izango da.

Nekazaritzako zuzendaritzaren barruan diru gehien jasoko daben partiden artean azpimarragarriak dira Baso laguntzarako plana (4,12 milioi euro) eta nekazaritzako ustiapenen inbertsinorako eta nekazari gazteei enpresak sortzeko emoten jakezan laguntzak (3,7 milioi euro).

Ingurumen Zuzendaritzak dituan 43,6 milioi euroak (%57,48) Ingurumen arloko azpiegituren programaren (38,2 milioi euro), eta babes eta ingurumen programaren (5,4 milioi) artean banatuko dira.

Lehenengo programa horren barruan inbertsino handiak batzen dira, hondakinen kudeaketara zuzendutakoa (20 milioi), besteak beste. Unzuetak adierazo dauenez, programa horren bitartez Aldundiak Artigaseko hondakindegia ezkerreko ibarraren zigilatzea, Konpostegiaren handitzea edo bosgarren edukiontzia ezarpenerako laguntzak finantzau gura ditu.

Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailak natur ondarearen kontserbazioaren aldeko apustua egingo dau beste urte batez. 2019an, Foru Aldundiak 490.000 euro bideratuko ditu mehatxatutako fauna eta flora espezieen jarraipenerako azterlanetara. Sailaren titularrak argitu dauen moduan, partida horren barruan sai arreakaz erlazonautako jarduketak be jasoko dira.

GARRAIOAK, LURRALDEAREN KOHESIOA ETA MUGIKORTASUNA

Jardunaldia ixteko, Miguel Ángel Gómez Viar Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Saileko arduradunak, bere sailak 2019rako daukan aurrekontuaren alderdi garrantzitsuena azaldu dau. Guztira 139.984.916 eurokoa dan aurrekontuaren parte nagusia, beste urte batez, Bizkaibus zerbitzuak jasoko dau, horren partideak %4,23 egingo dauelako gora, 88.800.000 €-ra heldu arte.

Gómez Viarrek adierazo dauenez, aurrekontua hiru ildo estrategikotan oinarrituko da: erakunde publikoen gardentasuna, eraginkortasuna eta gertutasuna; mobikortasun jasangarria; eta eskualdeen garapena eta lurraldearen kohesinoa.

Gómez Viarrek bere esku-hartzean baieztu dauenez, datorren urtean, barriro be, Aldundiak 550.000 euro bideratuko ditu markesinen parkearen instalazinora eta mantentze lanetara. Lehenengo markesinea Muskizen instalauko da, “eta datorren asteetan beste herri batzuetan jarraituko dogu”.

2019. urteari begira ezarriko dan barrikuntza handienetako bat, Bidaiarien Garraio zerbitzuan genero ikuspegia apliketea izango da; behar hori Bardintasun eta Ogasun

sailtako teknikariakaz “batera” egingo da. Aldundiak generoaren arabera bananduko dau bidaiarien kudeaketaren inguruan jasoko dauen informazioa, aurrerago, egon daitekezan aldeak eta alde horreen zergaiti posibleak aztertzeke, holangorik egon ezkeru.

Garraio sailaren beste ekarpen handienetako bat garraio publiko azpiegiturara egongo da zuzenduta. Holan, Aldundiak 43 milioi euroko partidea erreserbau dau Bizkaiko Garraio Partzuergorako (BGP), hau da, aurreko urtean baino %4,75 gehiago. Diru hori, Bilboko lur azpiko garraioaren mantentze lanak ordaintzeke erabiliko da.

Talde Popularrak egindako galderari erantzunez, Gómez Viarrek Bilboko Metroaren 4. eta 5. lineak aitatu ditu, eta “egin behar dana marketan daben akordioak dagoz Batzar Nagusietan, Eusko Jaurlaritzan eta Udaletan” adierazo dau. Hori dala eta, “sail honen jokabidea akordio horreek betetea izango da”.

Beste alde batetik, Bilbo Metropolitarrereko LPPa barriztetako prozesuak 290.650 € eroango ditu. Gómez Viarrek adierazo dauenez, 2019an Bilbo Metropolitarrereko LPParen haserako onspen dokumentua egitea dago aurreikusita, eta baita gune funtzionaleko Paisajearen Katalogoa eta Determinazioak be.

Lurraldearen antolamenduari jagokonez, %30 egingo dabe gora udalerriei euren urigintza arloko plangintza egokitzeko eta egiteko emongo jakezan laguntzak, 600.000 eurora helduz. Atal horri jagokonez, Gómez Viarrek adierazo dau Aldundiak aurrera jarraituko dauela Udalei laguntzea emonez euren plangintza aztertzeke eta Lurzoruaren Legera egokitzeko beharrean, “gure aholkularitza eta laguntza tekniko eskiniz”.

08/11/18

La Diputación Foral destinará 10,2 millones de euros a infraestructuras de innovación y conocimiento

A lo largo del día de hoy ha tenido lugar en la sede de Bilbao de las Juntas Generales, la segunda jornada informativa del Proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2019 en el seno de la comisión de Economía y Hacienda. En una de las tres sesiones convocadas, el diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha anunciado que el año próximo su departamento consignará 10,2 millones de euros al desarrollo de infraestructuras de innovación y conocimiento. Entre ellas se encuentran el nuevo Parque Tecnológico de la Margen Izquierda (3,1 millones de euros); el centro internacional de emprendimiento (500.000 euros); y el Energy Intelligence Center –EIC- y Automotive Intelligence Center – AIC- (6,6 millones de euros).

Esta es una de las cuestiones que se recogen en las cuentas del departamento de Desarrollo Económico y Territorial que crece un 5,4% y alcanza los 283 millones de euros.

También ha destacado el diputado foral en su intervención el apoyo decidido del departamento a la innovación de las pymes de Bizkaia con una dotación de 4,3 millones, a través de los programas 3i de apoyo integral a la innovación, inversión e internacionalización; el programa 2i de impulso a la competitividad; el decreto Elkarlanean; y un nuevo programa de refuerzo de cadenas de valor para las empresas y tractoras, y proveedores.

Entre las obras que se acometerán en 2019, Pradales ha citado las actuaciones del plan Bidesarea (21,6 millones de euros) en la que se incluye la segunda fase de Kukularra y el vial de conexión con la variante de Bermeo; y la fase 1b de la Supersur (45 millones).

Dentro del ámbito de la red viaria, una de las prioridades de la Diputación Foral de cara al año que viene será el “fuerte” impulso de la red ciclable “para trabajar en una nueva movilidad en la que la bicicleta también tiene un rol fundamental que jugar”.

En el área de internacionalización y talento, los programas de internacionalización y apoyo a pymes contarán con 4,7 millones de euros donde destacan los 2,5 millones de euros (+28%) que se destinarán al decreto de ayudas para empresas. Además, en este nuevo ejercicio se destinarán 2,1 millones de euros para distintas acciones y programas de apoyo al talento y la excelencia.

Imanol Pradales ha puesto en valor el gran impulso que se da a la promoción integral de Bizkaia como destino turístico, con partidas que suman 5,3 millones de euros, lo cual implica un incremento del 18% respecto al ejercicio 2018. El diputado ha destacado también una acción novedosa “para promover una nueva señalética turística en el Territorio que permita distribuir los flujos turísticos por el conjunto de Bizkaia”. La Dirección de Turismo y Promoción Exterior desarrollará esta actuación en colaboración con la Dirección de Infraestructuras Viarias.

SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL

La Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha sido la primera en desgranar hoy el presupuesto con el contara su departamento para afrontar las iniciativas a desarrollar en 2019. Este importe asciende –excluyendo los gastos del personal- a 75,9 millones de euros.

Entre las principales líneas de actuación, Unzueta ha destacado, en primer lugar, el destino de 22 millones de euros a ayudas dirigidas al primer sector que están incluidas en la dirección de Agricultura (27,12 millones de euros). La novedad será la inclusión de una partida de 1,7 millones de euros, en las líneas de ayuda e intervención que se ofrecerán para hacer frente a la enfermedad del pino.

Entre las partidas con mayor cuantía de la Dirección de Agricultura destacan el plan de ayuda forestal (4,12 millones de euros) y las ayudas a la inversión de las explotaciones agrarias y a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras (3,7 millones de euros).

La Dirección de Medio Ambiente repartirá los 43,6 millones de euros (57,48%) de los que dispone entre el programa de infraestructuras medioambientales (38,2 millones de euros), y el en el de protección y medio ambiente (5,4 millones).

Dentro de este primer programa se concentran grandes inversiones como la que se dedica a la gestión de residuos (20 millones) con la que, según ha manifestado Unzueta, la Diputación prevé financiar el sellado de la vaguada izquierda del vertedero de Artigas, la ampliación del Konpostegi o las ayudas para la implantación del quinto contenedor.

El Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural volverá, un año más a apostar por la conservación del patrimonio natural. En 2019, la Diputación Foral destinará 490.000 euros a estudios de seguimiento de especies de fauna y flora amenazada. Una partida que, tal como ha aclarado la titular del Departamento, también incluirá actuaciones relacionadas con los buitres leonados.

TRANSPORTES, COHESIÓN TERRITORIAL Y MOVILIDAD

Cerrando la jornada, el diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Miguel Ángel Gómez Viar, por su parte, ha explicado que la parte más sustancial del Presupuesto para 2019 de su Departamento, que alcanza los 139.984.916 euros, se la lleva, un año más, el mantenimiento del servicio Bizkaibus que incrementa su partida en un 4,23%, alcanzando los 88.800.000€.

Este presupuesto pivotará, según ha manifestado Gómez Viar, sobre tres líneas estratégicas: la transparencia, la eficiencia y la cercanía de las instituciones públicas; la movilidad sostenible; y el desarrollo comarcal y la cohesión del territorio.

En su intervención, Gómez Viar ha confirmado que la Diputación volverá destinar 550.000 euros a la instalación y mantenimiento del parque de marquesinas. La primera marquesina se instalará en Muskiz, “y en las próximas semanas seguiremos por otras localidades”.

Una de las grandes novedades de cara al 2019 será la aplicación de la perspectiva de género sobre el servicio de Transporte de Viajeros; una labor que se realizará “conjuntamente” con personal técnico de Igualdad y Hacienda. La Diputación dividirá por género la información que se recoja relativa a la gestión de viajeros y viajeras, para más adelante analizar las diferencias, si las hubiera, y las causas posibles de las mismas.

Otra de las grandes aportaciones del departamento de Transportes va dirigida a infraestructuras de transporte público. En este sentido, la Diputación ha reservado una partida de 43 millones de euros para el Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB), que supone un incremento del 4,75% y que va dirigida a pagar las labores de mantenimiento en el suburbano bilbaíno.

A pregunta del Grupo Popular, Gómez Viar se ha referido a las líneas 4 y 5 del Metro Bilbao manifestando que “existen acuerdos en las Juntas Generales, Gobierno Vasco y ayuntamientos que marcan lo que hay que hacer”, por lo que “la posición de este departamento es dar cumplimiento a estos acuerdos”.

Por su parte, el proceso de renovación del PTP del Bilbao Metropolitano se lleva 290.650€ euros. Gómez Viar ha manifestado que en 2019 está prevista la elaboración del documento de aprobación inicial del PTP de Bilbao Metropolitano, así como en la elaboración del Catálogo y Determinaciones del Paisaje del área funcional.

En materia de Ordenación del Territorio, incrementan en un 30% las ayudas a municipios para la adaptación y elaboración de su planeamiento urbanístico, con una dotación de 600.000 euros. Respecto a este apartado, Gómez Viar ha explicado que la Diputación continuará con la labor de apoyo a los Ayuntamientos en sus revisiones de planeamiento y adaptación a la Ley de Suelo, “ofreciéndoles nuestro asesoramiento y asistencia técnica”.